

Kanala eta bezeroekiko harremana:

Kanalei dagokionez, hasieran bezeroek gure informazioa edukiko dute sare sozialei bidez gurekin harremanetan jartzeko. Informazio honetan, helbide elektronikoa eta telefono zenbakia egongo da, hasieran nahikoa izango delako. Aurrerago, web orri bat sortuko dugu, eta hemendik errazago izango da gurekin harremanetan jartzea, edozein zalantzaren aurrean Web orrian gure produktua eta enpresaren informazio ugari jarriko dugu.

Bezeroekin harremana estutzeko, web orrian, informazio baliagarria egongo da. Edozein duden aurrean, gurekin kontaktuan jarri ahal izango dute modu ezerdinen bidez: informazio helbide elektronikoa, telefono zenbakia edo sare soziala

Horrez gain, gure web orriak maiz galdetzen diren galderak erantzuteko ahalemina izango du inteligentzia artifizialaren bidez. Atal honekin, gure bezeroak dituzten arazoak modu erraz, efiziente eta azkar batean konponduko ditugu.

Bi modu hauetara, gure bezeroekin dugun harremana estutzeaz gain eta dituzten arazoei, konponbidea emateaz gain, tratatu honekin, bezero berriak erakarriko ditugu.